



Neurketaren prozedura

Udalerrien hizkuntza-politika funtsezkoa da euskararen normalizazioan aurrera egiteko. Udalek ere badute herria euskalduntzeko boterea eta erantzukizuna. Praktikan jartzen dituzten politikak ezinbestekoak dira herrian euskara erabiltzeko aukerak emateko eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Euskal Herriko **66 herritako** hizkuntza-politika aztertea izan du helburu, hots, 2 milioi biztanle baino gehiagorengan eragina duen hizkuntza-politika, egoeraren balorazio orokorra egin eta aurrerantzean herri guztietan euskara sustatuko duen hizkuntza-politika eraginkorragoa ezartzea eskatu du.

Hainbat adituk lagundu dute udalerrien hizkuntza-politikaren neurketarako galdetegia sortzen. Hainbat profesionalak parte hartu dute azken definizioan, azterketak berak arlo askori buruzko informazioa biltzen duelako.

Arlo teknikoan ere lagundu dute adituek lana sistematizatzeko orduan.

Horretarako, prozedura jakin bat erabili du Kontseiluak, atal honetan urratsez urrats azalduko dena:

Galdetegiak herrietan

2005eko azarotik 2006ko otsaila arteko hilabeteetan 66 herritan euskalgintzako **150 bat laguntzailek** osatu zuten herriz herri zegokien galdetegia. Erabakien eta baliabideen galderetan informazioa erraz eskura zezaketen kontaktuez baliatzea aholkatu zien Kontseiluak, euskara teknikaria bera laguntzaile proposa izango zela adieraziz.

Bildutako guztiari buruzko ohar, agiri eta argazkiak biltzeko eskatu zien Kontseiluak. Zailtasunak zailtasun, herrietako laguntzaileak prozedurari atxiki zitzaizkion eginkizuna arrakasta handiz burutu zutelarik. Galdetegiei emandako 9.000 erantzun aztertu dira, ehunka agiri eta dokumentu eskuratu dira (aktak, plan estrategikoak, bandoak, ordenantzak, eskaera orriak, egitarauak etab.) eta 2.000 argazki baino gehiago egin dira.

Datuak informatizatuta

Haztapenerako, aurretik prestatutako programa informatiko batean sartu dira erantzun guztiak. Bide batez, irakurketa errazteko grafiko eta bestelakoez hornitu da eta **nahi beste alderaketa eta azterketarako tresna** sortu da. Horri esker milaka datu gurutzaketa egin daitezke. Kontseiluak liburu honetan batzuk bildu ditu hizkuntza-politika orokorraren ikuspegitik egoeraren ideia hartzeko.

Tresna honek interesa azaltzen duen orori bere neurriko alderaketak egitea eskainiko dio. Izan ere, Kontseiluaren webgunetik bertatik, neurketaren datuak herritarren eskura uzteko ekarpena egin da, erabiltzaileak nahi bezalako aztergaiak erabili ahal izateko.

www.kontseilua.org/udalneurketa




Rankin orokorra

Udalerrien hizkuntza-politikaren sailkapena da honako hau. Udalerri bakoitzak lortutako puntuaren arabera sortutako sailkapena. 0tik 10 arteko notak jarri dira erantzunen azterketa egin ondotik. 0 puntu izateak hizkuntza-politikak euskarari inolako tarterik ez diola eskaintzen adierazi nahi du eta 10 puntuak euskara hutsezko funtzionamendua definitzen du. **7 puntu eskuratzeak definitzen du euskara lehenesteko udalak egiten duen ahalegina.** Izan ere, haztaperak erakutsiko ligukeen moduan, muga horretatik gora koka liteke euskara lehenesteko politika sistematikoa (ez bada nota lortuta ere, neurri eta erabakiren batean huts egiten duela).

Lehenik termometro gisako batean jarri ditugu ikuspegi orokorra ematearren eta horren ostetik zerrenda batera ekarri ditugu herriak, zenbait datu lagungarriren ondoan.

Taulako ezagutzaren zutabearen aurkituko dugun kopuruari dagokionez, irakurlearen informaziorako, jakin euskaldunak eta ia euskaldunak hartu ditugula kontuan.

Edozein kasutan, prozeduran zehar eginiko kontrasteek eskaintzen dioten fidagarritasuna osoa bada ere, zuhur jokatzeko aldera herri bakoitzaren notari korrekture bat ezarri behar zaio +0,2 -0,2 tartea eskainiz.





Udalerrietan hizkuntza-politika berria

5

4,98 Eibar	4,95 Arrasate	
4,88 Ordizia		
4,78 Hernani	4,76 Irun	
4,64 Galdakao	4,6 Lesaka	
4,59 Altsasu	4,58 Zumarraga	
4,22 Donostia		
4,07 Pasaia	4,02 Lasarte-Oria	4,01 Amurrio
3,92 Erandio		
3,88 Durango		
3,71 Agurain		
3,62 Baztan		
3,57 Basauri	3,55 Gasteiz	
3,24 Barañain	3,23 Arrigorriaga	
3,19 Ermua	3,11 Errenteria	
3,01 Sestao	3,03 Zalla	
2,72 Zornotza		
2,69 Atarrabia	2,61 Bilbo	
2,59 Burlata		
2,44 Berriozar		
2,26 Laudio		
1,9 Trapagaran		
1,75 Iruñea	1,71 Zizur Nagusia	
1,57 Portugalete	1,54 Agoitz	
1,31 Tafalla	1,31 Santurtzi	
1,13 Barakaldo		
0,98 Lizarra		
0,87 Gares	0,85 Oion	
0,58 Zangoza	0,56 Biarritz	
0,4 Atarratze		
0,23 Donibane	0,22 Angelu	0,21 Hazparne
0,002 Baiona	0 Tuteru	





Ondorioak

- 1.** Kasu askotan **erabakia hartu bada ere, horren betetzearen inguruko segimendurik ez da egiten.** Horrela ulertu behar dira behaketa eta erabakiaren arteko desberdintasunak.
- 2.** **Puntuazioa estuki erlazionatuta dago ezagutza tasarekin.** Hau da, zenbat eta ezagutza handiagoa orduan eta puntuazio altuagoa. Hizkuntzaren statusa baino erabakigarriagoa da ezagutza-tasa Hegoaldean. Iparraldearen kasuan emaitza baxua da nahiz eta ezagutza maila desberdinak izan.
- 3.** Bereziki deigarria da **euskara ofiziala den lurraldean kokatutako udalerriak rankinaren azken postuetan ikustea.** Izan ere, statusak eta corpus juridikoak beste politika bat aplikatzeko aukera eskaintzen die, beraz, utzikeria edo normalizazioaren kontrako jarrera dira posizio hori ulertzeko gakoak.
- 4.** **Iparraldeko herrientzat eta Nafarroako hegoaldeko herrientzat dira azkeneko postuak.** Ofizialtasun faltak definitzen du statusa eta hainbaten kasuan ezagutza altua bada ere euskararen aldeko hizkuntza-politikarik ez dagoela esan liteke.
- 5.** Rankinaren **lehen herenean Gipuzkoako herrien presentzia handia da oso,** baita ezagutza-tasa altuak dituzten beste herrialde batzuetako udalerriena ere.
- 6.** EAeko hiriburuei dagokienez, **Donostia** (PSE-EE) lehena da rankinean nahiz eta aztertutako herrieekin konparatuz 26.a den. **Gasteiz** (PP) doa gero, 35.a, **Bilbo** (EAJ) ondoren, 44.a, **Iruñea** (UPN) 49.a eta **Baiona** (UDF) 65.a (azkenaurrekoa) Kontuan hartuz hiriburuek haien ezaugarri administratiboengatik herrialdeko biztanle guztientzat erreferenteak direla oso maila eskasa eskaintzen dute. Bereziki aipagarria Bilboko kasua euskara ofiziala den lurraldean kokatuta badago ere, lortutako puntu kopurua oso txikia delako (2,617). Horri gehitzen badiogu populatuena dela garbi ondorioztatuko dugu urgentziazkoa dela beste politika bat, gainerakoetan bezalaxe, bestalde.
- 7.** Aipagarria da oso **Ibarrezkerreko udalerrri handien puntuazio eskasa.** Rankinaren bukaeran agertzen dira euskara ofiziala ez den lurraldean kokatutako batzuen azpitik. Bestalde, Portugaleten, Santurtzin eta Barakaldon, esate baterako, biltzen den populazio handia kontuan hartuta hizkuntza politika desegoki horrek eragin handia du jende askorengan.



Politika orokorraren erabileraren ondorioak

Gehien hartzen diren erabakietatik gutxien hartzen direnetara, rankina:

- 1.** Rankinaren lehen postuetan agertzen diren neurriek ez diete herritarrei inolako bete beharrik ezartzen. Paisaiaren euskalduntzea, laguntzak, eskaintzak e. a. nagusitzen dira. Ez dira ageri neurri betearazleak.
- 2.** Enpresen eta zerbitzuen gaineko neurri-eskariak oso ahulduta agertzen dira, neurrien rankinaren erditik behera kasu guztietan.
- 3.** Langile kontratatu berriak elebidunak izateko erabakia azken aurrekoa izatea bereziki kezka-garria da. Beste gauza batzuen artean, euskara ez dakien langilea kontratatuz gero euskalduntzeko bitartekoak eskaini behar direlako eta ondorioz, ebitatu zitekeen gastua egiten delako eta ez delako euskarazko zerbitzua bermatzen pertsona euskaldundu arte. Aztertutako en artean soilik 14 udalek dute langile elebidunak kontratatzeko erabaki hori hartua.
- 4.** Beste hainbeste gertatzen da udal sail desberdinek izan beharko luketen herritarrekiko arreta euskaraz bermatzeko plangintzarekin. Aztertutako udaletatik soilik 16k dute udal langile guztiak barne dituen plangintza abian. Plangintzarik ezean euskaldunon hizkuntza-eskubideen urraketak ez du bukaerarik izango denboran eta udal langileen borondatearen baitakoa izango da.
- 5.** Aztertutako udalen erdiak bakarrik du udal-ordenantza. Euskararen normalizazio- prozesuak bidea erraztuko duen corpus juridikoaren beharra du eta hori udal mailan ordenantza da. Esan liteke beraz, borondatean oinarritutako eta babes juridikorik gabeko hizkuntza-politika aplikatzen dela aztertutako udalen erdien kasuan.
- 6.** Udalen heren batek, gutxi gora-behera (41-24) ez du plan orokorrik. Hizkuntza-politika planifikatu behar da ezinbestean garbi adieraziz zein diren helburuak eta epeak. Bereziki esanguratsua da beraz, aztertutako udalen portzentaia altuan plangintzarik ez egotea.
- 7.** Udal askoren joera nagusia azpikontratazioa denean edo diru-laguntza politika, bereziki kezka-garria da ikustea azpikontratazio nagusien kasuan eta diru laguntzen banaketaren kasuan, hartzaileei ez zaiela hizkuntza-eskakizunik egiten kasuen % 60an. Zaku berean dago azken puntua esate baterako, kaleetako obren kasuan egin dugun behaketaren arabera soilik 8 herritan ikusi ditugun kartel guztietan ageri da euskara.
- 8.** Udalaren barne-funtzionamenduarekin erlazionatutako puntuak ere oso baxu ageri dira. Horrela, kontratatutako zerbitzuek egin behar dituzten enpresei txostena euskaraz eskatzea soilik 15 herritan erabaki da eta 23tan bakarrik aurkeztzen da elebiz osoko bilkuretako materiala.
- 9.** Nagusiki eta oro har esan liteke, saihestu dela politika beterazletarantz urratsik ematea, plangintzarik gabe ari direla udal gehienak, kasu gehienetan langile elebakarrak kontratatzen segitzen dutela eta hartutako arauen segimendu zorrotzik ez dela egiten.



Herrietako aurkezpenetarako oharrak:

- a) Antolatzaileei lekua, eguna eta ordua lotzea eskatuko diegu. Era berean, helaraziko dizkiegun gonbidapenak hiritarrei, herriko elkarte-erakundeei eta alderdi politikoei banatzea.
- b) Gurekin harremanetan jartzeko mikel@kontseilua.org helbidea edota 628229039 telefonoa erabili ahal izango dituzte.
- c) Kontseiluak bere aldetik, liburua eta programa informatikoa aurkeztuko du. Gainera, horietan agertzen ez diren eta herriarekin edo eskualdearekin harreman zuzena duten datu osagarriak (agiriak, argazkiak,...) emateko konpromisoa hartzen du.



Etorkizuneko lankidetzarako asmoa:

- a) Herriren bateko taldeak hizkuntza-politikaren ildoan gurekin lankidetzan aurrerapausoak emateko prest agertuz gero, Kontseiluak bere esku dagoen laguntza osoa eskainiko dio. Horretarako elkarrekin asmoak ebaluatuko dira beharrezkoa den plangintza antolatzeari begira.
- b) Lankidetzak guztiak baliatuz, hainbat herrietako esperientzien arteko zubia eraiki nahi du Kontseiluak, udal eta euskalgintzako kideei aholkularitza eta ideia berriak eskainiz.
- c) Lankidetzak horretan antolatutako herriek une oro jakin ahal izango dute Euskal Herriko edozein Herriko Etxe edo Udalerrian normalizazioaren bidean hartu diren neurri eta erabakien berri.
- d) Herri eta eskualdeetako kideek Kontseiluari etengabe jakinaraziko dizkiote ahalegin berrien arrakasta eta hauen balorazioa beste taldeei baliagarri gerta dakien.

e) Harremanetarako aski da mikel@kontseilua.org helbidea eta 628229039 telefonoa erabiltzea eta aipatutakoari buruzko zehaztapen gehiago emango zaizkio deitzaileari.